Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

95 alea/ 2023ko ekaina

## Berritasunak




**600 enpresa baino gehiago bisitatu ziren 2022an.** 2022an, Laneko Osasun Zerbitzuko teknikariek **660 enpresa** bisitatu zituzten guztira. Horietatik, **304 jarduera lehenetsietakoak ziren**, eta urtero hautatzen dira, ezbehar-tasa handia dutelako. Iaz, zehazki, **gasolindegien eta handizkako biltegien jarduerak** aukeratu ziren. Bisitatutako gainerako enpresak NOPLOIk sektore jakin batzuetan lanbide-gaixotasunak izateko arriskua eta ezbehar-tasa murrizteko garatu ohi dituen programen barruan sartzen dira.

---

**Lantokiei buruzko Errege Dekretua aldatzea, tenperatura altuei dagokienez**. Ministroen Kontseiluak *Lantokiei buruzko Errege Dekretua* aldatzea onartu zuen berriki, aire zabalean egindako lanen arrisku-ebaluazioetan **muturreko tenperaturak, zereginaren ezaugarriak eta langileen faktore indibidualak** kontuan har daitezen. Ebaluazioarekin bat datozen prebentzio-neurriek langileen babesa bermatu behar dute, kontrako fenomeno meteorologikoak gertatzen diren orduetan lan jakin batzuk saihestuz, eta lanaldiaren orduak murriztera edo aldatzera ere irits daitezke, AEMETek igorritako maila laranja edo gorriko alertetan.



## Nabarmendua



**NOPLOIk prebentzioko 90 teknikari trebatu ditu ergonomiako TACOS metodoan.** Guztira, 90 pertsonak parte hartu zuten maiatzaren 11n eta 12an, **TACOS metodoa (Jarrera behartuen eta multiatazen ondoriozko arriskuen ebaluazioa)** tailer teknikoaren bi edizioetan; gehienak ergonomian espezializatutako prebentzioko teknikariak ziren. Horrelako prestakuntza-ekintzak antolatuz, Laneko Osasun Zerbitzuak Nafarroako prebentzioko teknikarien jakintza eguneratzen eta espezializatzen lagundu nahi du.

---

**Abian da Europako Agentziaren (EU_OISHA) kanpaina berriaren webgunea** Joan den maiatzean, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak (EU-OSHA) webgune berria prestatu zuen «**Lan seguruak eta osasungarriak aro digitalean**» kanpainarako, zeina 2023ko urrian abiaraziko baita ofizialki.

Webgunea eguneratzen eta hizkuntzetara egokitzen joanen da egun horretara arte, eta bertan baliabide ugari eta informazio handia egonen dira lanaren digitalizazioak dakartzan arrisku eta onurei buruz, bai eta agertoki berri horretan segurtasuna eta osasuna bermatzeko moduari buruz ere.




## Berriak

- ➢ Trabajo propone que los hogares con empleadas del hogar se autoevalúen contra los riesgos laborales con un cuestionario
  Europa Press

- ➢ Las empresas, obligadas a parar algunas actividades por la seguridad de los trabajadores ante alertas de calor extremo
  RTVE

- ➢ El Supremo dice que una caída en la ducha de un hotel no es un accidente laboral
  Diario de Noticias

- Un juez anula el despido de un trabajador de baja médica al aplicar en Navarra la ley para la no discriminación
  Europa Press

- El estrés laboral como germen de la depresión: la presión en el trabajo potencia los trastornos mentales
  Prevención Integral

- Siniestralidad laboral en Navarra: un fallecido y 21 lesiones graves desde principios de año
  Cadena Ser

- Condenado a un año de prisión por la muerte de un trabajador en la depuradora de Corella en 2018
  Diario de Noticias

## Agenda

Webinario
**EVALUACIÓN DE RIESGOS DE ISOCIANATOS**
Birtuala – Ekainak 13

- Programa
- Izen-ematea

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko Osalanen XIII. Udako ikastaroak
**ACTUALIZACIÓN DEL MARCO JURÍDICO Y TÉCNICO DE LA PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES**
Miramar Jauregia – Ekainak 15 eta 16

- Programa
- Izen-ematea

Ikastaroa
**INVESTIGACIÓN DE CASOS DE ENFERMEDAD PROFESIONAL**
SSCC Prestakuntza Gelak – Ekainak 27

- Programa
- Izen-ematea

Webinario
**TALLER: SEGURIDAD DE LAS MÁQUINAS AGRÍCOLAS**
Birtuala – Irailak 13

- Programa
- Izen-ematea

# Argitalpen digitalak




**Implementar un medio ambiente de trabajo: seguro y saludable**
OIT




**Evaluación de la exposición a agentes químicos en peluquerías**
INSST




**Perspectivas sociales y del empleo en el mundo – Tendencias 2023**
OIT




**Prevención y Planes de Igualdad**
INVASSAT/ COGITI Valencia




**ERGA - Legislación**
Nº 4 - 2023

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara ispln.ufii@navarra.es

**ARGITARATZAILEA:**
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
(Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua: Fitxategi elektronikoa.
2023ko ekaina